

# Antxiñako fotografixia



## Aspaldiko futbolistak

Fotografixa honetan agerketan diran futbolista batzuk gerra aurreko Aloña Mendixian be jardun ebein, baiña argazki hau atara zanian, Txantxiku Txokoko bazkide moduan fan zirar Mondragueko Maala futbol-kanpora ezkondu eta solteruen arteko partidua jokaketara, 1930 inguruan.

Hona hemen jokalarixen eta laguntzaille batzuen izenak. Ezkerretik eskumara zutik: Teofilo Agirrezabal, Ignazio Altuna (baloiarekin), Rafael Kortabarría, Joxe Madina Txurruka, Juanito Luzar, Joxe

Mari Otaño, Oskar Zulueta, Pipo Madinabeitia, Julio Etxebarria, Kornelio Oleaga (txapelduna), Lanberto Isasa, panaderua, Bixente Astiazaran Txaketua, Andres Leturia, botikarixua. Paisanuen artian Paulino Txiki eta Migel Lazkano.

Makurtuta: Jexus Galdos Zenizero, Joxe Mari Arralde, taxistia, Joxe Mari Perosterena eta Emilio Etxeberria.

Lurrian jarritta: Farretxe, Tomas Ugarte Mallu, Juanito Zubia, Roman Kortabarría, Gillerimo Arzelus eta Joxe Migel Gomendio.

Mutiko uniformedunak Bixente Bengoetxea Bixiola, Txokokua, eta Aranburu izeneko bat, Mondragueko Kasinokua.

J.E.

Fotografixa Emila Perosterenak eskuratu dosku eta, futbolistak ezaguketako, Emila berak, Felisa Enparantzak eta Bixente Bengoetxeak emundako argibidiaz balixau gara. Eskerrik asko danoirit!

## PEÑAKOBA

### AUTOESKOLA

Arkitekto Lizaur  
Tfnoa: 78 05 60 ONTI

Zarugalde, 46 Tfnoa: 79 29 93  
ARRASATE



## M. AGUIRREURBETA OKINDEGIÀ

P. Berezano, 21  
Tfnoak: 78 23 45 / 78 22 54  
OÑATI